MI6
MOSAICO ITALIANO

ItaliaTxiki Kultura Elkarteak KMKrekin lankidetzan antolatutako zine zikloa

Un ciclo de cine organizado por la Asociación Cultural ItaliaTxiki en colaboración con KMK

ASOCIACIÓN ITALIATXIKI ELKARTEA

italiatxiki.org

info@italiatxiki.org

KOLDO MITXELENA KULTURUNEA

Elbira Zipitria bidea, 1
Donostia-San Sebastián (Alde Zaharra)

(+34) 943 11 28 93

programazioa@gipuzkoa.eus

kmk.gipuzkoa.eus

KMK Zuzenean

L.G./D.L.: D-860-2025

Aurreko edizioetan bezala, Mosaico Italianok film italiarren zenbait proiekzio aurkeztuko ditu, Italiak azken mendean izan dituen aldaketei buruzko gogoeta egiteko, bere zinematografiaren bidez. Jatorrizko hizkuntzan eskainiko dira, gaztelaniazko azpitituluekin.

1895eko "La Sortie des usines Lumière" argitaratu zenetik mundu osoko kamerek lan-mundua filmatu eta aztertu dute, eta joan den mendeko zuzendari italiarrek ez diote uko egin zeregin horri. Lan horiek Italiako gizarteak gerraostetik gaur egun arte izandako aldaketak kontatu dituzte; Bigarren Mundu Gerraren ondoren suspertu zenetik gizarte-egitura hondatzen ari den egungo prekarietatera arte. Horregatik, Mosaico Italiano 6k zazpi lan aukeratu ditu lan-munduari buruzko ikuspegi desberdinak eskaintzeko eta egungo Italiari, haren indarguneei eta ahuleziei buruzko eztabaida pizteko.

Saila 2025eko urrian hasiko da, Pietro Germi-ren ***Il ferroviere***-rekin. 50eko hamarkadako proletariotzaren eta Bigarren Mundu Gerraren amaieran izandako aldaketa sozialen ikuspegi zintzo eta errealista eskaintzen du.

Geroago, Mario Monicelliri esker denbora-bidaia egingo dugu, 1963ko ***I compagni*** filmarekin kontatzen baitu XIX. mendearen amaieran Turin hirian, Italiako industriaren erdigune nagusian, izandako borroka sozialen historia. Filma hotz-hotzean jaso zuten Italian 60ko hamarkadan, baina Oscarretarako izendatu zuten, Jatorrizko Gidoirik Onenaren kategorian.

Milan hiria Italiako zinemaren klasiko handienetako baten eszenatokia da: Luchino Viscontiren ***Rocco e i suoi fratelli***. Italiako iparraldeko migrazioari, salbazioaren bilaketari eta iparraldearen eta hegoaldearen arteko talka kultural eta sozialari buruzko istorioa da.

Antonio Morabitoren ***Rimetti a noi i nostri debiti*** filma gaur egungo gizartean girotuta dago; protagonistak, zorrek itota, lan deshumanizatzaile bat onartu behar du.

MI6k Paolo Virzi-ren ***Il Capitale Umano***-rekin jarraituko du. Livornoko zuzendariak deskribatzen duen gizartean, gizakiaren balioa ekonomikoa besterik ez da, eta klase-desberdintasunak areagotzen doaz, morala ego ahalguztidupean desagertzen den bitartean.

Tradizioa jarraituz, apirila Italiako Erresistentziari eta faxismoaren amaierari eskainita dago. Aurten, Mauro Bologninik 1975ean zuzendutako ***Libera, amore mio!*** filmarekin efemeridea ospatuko dugu. Filmak izenez eta egiaz aske den emakume baten istorioa kontatzen du; honek ez die bere balio antifaxistei uko egiten eta, 1945etik aurrera, lider faxista ohiek iragazkortutako administrazio publiko baten aurrean erresistentzia izaten jarraitzen du. Ohartarazpen gisa balio digu, baita gaur egun ere, erne egoteko.

Zikloa 90eko hamarkadako gizarte-egiturari erreparatuz amaituko da, ***Non essere cattivo***, Claudio Caligariren azken filmaren eskutik. Lana, kasu honetan, itxuraz erredentorea da, normaltasunez betea, eta kontraste bortitza egiten du Erromako auzo pobreen testuinguru sozialarekin, legez kanpo eta drogaz inguratuta bizi baitira.

Como en ediciones anteriores, Mosaico Italiano presenta una serie de proyecciones de películas italianas, en lengua original con subtítulos en castellano, para reflexionar, a través de su cinematografía, sobre los cambios que ha experimentado Italia en el último siglo.

Desde "La Sortie des usines Lumière" de 1895, el mundo del trabajo ha sido filmado y analizado por cámaras de todo el mundo, y los directores italianos del siglo pasado no han rehuido esta tarea. Estos trabajos han relatado los cambios de la sociedad italiana desde la posguerra hasta nuestros días; desde su renacimiento tras el conflicto mundial hasta la precariedad actual que está minando el tejido social. Por este motivo, Mosaico Italiano 6 ha seleccionado siete títulos para ofrecer diferentes perspectivas sobre el mundo del trabajo y estimular un debate sobre la Italia actual, sus fortalezas y sus debilidades.

La serie comienza en octubre de 2025 con *Il ferroviere*, ***de Pietro Germi, que ofrece una visión sincera y realista del proletariado de la década de 1950 y los cambios sociales que se desarrollaron con el fin de la Segunda Guerra Mundial.***

Viajaremos después en el tiempo gracias a Mario Monicelli, que con la película *I compagni*, ***de 1963, cuenta la historia de las luchas sociales de finales del siglo XIX en la ciudad de Turín, centro neurálgico de la industria italiana. La película, que fue recibida con frialdad en la Italia de los años 60, fue nominada al Oscar al Mejor Guion Original.***

La ciudad de Milán es el escenario de uno de los grandes clásicos del cine italiano: *Rocco e i suoi fratelli*, ***de Luchino Visconti, una historia sobre la migración en el norte de Italia, la búsqueda de la salvación y el choque cultural y social entre el norte y el sur.***

Con la película de Antonio Morabito *Rimetti a noi i nostri debiti*, ***nos situamos en la época actual, donde el protagonista, ahogado por las deudas, se encuentra obligado a aceptar un trabajo deshumanizador.***

MI6 continúa con *Il Capitale Umano*, ***de Paolo Virzì. El director livornés describe una sociedad en la que el valor del ser humano se reduce a una cuestión económica y en la que las diferencias de clase se amplían cada vez más, mientras la moral desaparece bajo un ego omnipotente.***

Según la tradición, el mes de abril está dedicado a la Resistencia italiana y a la liberación del fascismo. Este año, celebraremos la efemérides con la película *Libera, amore mio!* ***dirigida por Mauro Bolognini en 1975. La película cuenta la historia de una mujer libre –de nombre y de hecho– que no renuncia a sus valores antifascistas y continúa su resistencia más allá de 1945 frente a una administración pública todavía permeada por antiguos líderes fascistas. Nos sirve de advertencia, incluso hoy, para no bajar nunca la guardia.***

El ciclo concluye con una mirada al tejido social de los años 90, gracias a la última película de Claudio Caligari, *Non essere cattivo*. ***El trabajo, en este caso, es el telón de fondo aparentemente redentor, cargado de normalidad, que contrasta violentamente con el contexto social de los suburbios romanos, sumidos en la ilegalidad y las drogas.***

MI6
MOSAICO ITALIANO

2025eko urritik 2026ko maiatzera arte
De octubre de 2025 a mayo de 2026

KOLDO MITXELENA KULTURUNEA

ASOCIACIÓN ITALIATXIKI ELKARTEA

MI6 KMK EKITALDI ARETOA 18:30EAN

2025EKO URRIAREN 22A, ASTEAZKENA

IL FERROVIERE
TREN-GIDARIA

Pietro Germi | 1956 | 118' | J.B.G.A.

Andrea tren-gidaria da eta senar-emazteengan sortutako krisiagatik eta familian izandako aldaketengatik ikaratuta dago. Lanean aurre egin beharreko egoerek beren bakardadea eta tormentuak azaleratzen dituzte. Lana gero eta deshumanizatzaileagoa suertatzen zaio eta gogorik eza eta gizarte-erredentzioa bilatu nahia gailentzen dira. Film honek Italiako proletarioek gerraostean bizi zuten egoera zaila irudikatzen du.

2025EKO AZAROAREN 5A, ASTEAZKENA

I COMPAGNI
LANKIDEAK

Mario Monicelli | 1963 | 130' | J.B.G.A.

XIX. mende amaierako Turinen, ehun-fabrika bateko langileak borrokan ari dira lan-baldintza duinagoak lortzeko. Enpresaren jabeek ez dute akordio batera iritsi nahi, eta langileek, poliziak bilatutako agitatzaile politikoa den Sinigaglia (Marcello Mastroianni) buru dutela, greba hasten dute. Kapitalaren eta lanaren arteko talka hainbat aste luzatzen da, eta denbora horretan borrokaren protagonisten bizitzek erakusten dizkigute – horien artean Raoul eta Bianca (Raffaella Carrà) – beraien handitasunak eta miseriak, maitasunak eta traizioak, adorea eta porrotak. Filmak Mar del Plata Nazioarteko Zinemaldiko Urrezko Astorra irabazi zuen, eta Jatorrizko Gidoirik Onenaren sarirako hautagaia izan zen 1964ko Oscarretan.

2026KO URTARRILAREN 14A, ASTEAZKENA

ROCCO E I SUOI FRATELLI
ROCCO ETA BERE ANAIAK

Luchino Visconti | 1960 | 107' | J.B.G.A.

Film honekin, Viscontik Italiako hegoaldetik etorkizun hobe baten bila Milanera emigratutako familia baten historia kontatzen du. Bost anaien arteko loturaren bidez, ikuslea 50eko hamarkadako Italiako gatazka moral eta sozialen lekuko da. Gatazka horietan eredu sozial indibidualista sortu zen, komunitatearen zentzua eta interes kolektiboarena desorekatzen dituena.

2026KO OTSAILAREN 4A, ASTEAZKENA

RIMETTI A NOI I NOSTRI DEBITI
BARKA IEZAZKIGUZU GURE ZORRAK

Antonio Morabito | 2018 | 104' | J.B.G.A.

Guido, lana aurkitzeko borrokan ari den informatikako teknikari ohia, zorren kobratzaile gisa lan egiteko eskaintzen du bere burua, zorrak kitatu ahal izateko. Francorekin batera lan eginez, lanaren basakeria deskubritzen du eta bere moraltasunari aurre egin beharko dio. Film honetan, zapaltzaileak eta zapalduak bereizteko zailtasuna aztertzen da, eta ongiaren eta gaizkiaren arteko muga lauso bilakatzen da.

2026KO MARTXOAREN 11A, ASTEAZKENA

IL CAPITALE UMANO
GIZA-KAPITALA

Paolo Virzì | 2014 | 110' | J.B.G.A.

Paolo Virzì-ren *Il capitale umano* drama koral bat da, Lonbardiako bi familien arteko loturak aztertzen dituena: Bernaschi aberatsen eta Rovelli ez hain aberatsen artekoak. Katalizatzailea Gabon-gauean izandako auto-istripu bat da, abarizia, hipokresiak eta sekretuak agerraraziz. Filmak gaur egungo gizartearen ikuspegi ziniko eta zorrotza eskaintzen du, pertsonen balioa termino ekonomikoetan soilik neurtzen dela baitirudi.

2026KO APIRILAREN 15A, ASTEAZKENA

LIBERA, AMORE MIO!
LIBERA, MAITEA!

Mauro Bolognini | 1975 | 110' | J.B.G.A.

Libera, Ustica uhartera baztertutako anarkista baten alaba, antifaxista porrokatua da. Mussoliniren erregimenaren aurka protesta egiten du eta Bigarren Mundu Gerrako erresistentzian parte hartzen du. Horregatik, familiak hiriz aldatu behar izaten du behin eta berriro.
Bere erabakiek komisario faxista bati aurre egitera eramango dute.

2026KO MAIATZAREN 13A, ASTEAZKENA

NON ESSERE CATTIVO
EZ ZAITEZ GAIZTOA IZAN

Claudio Caligari | 2016 | 94' | J.B.G.A.

90eko hamarkadako Erromako auzo pobreetan Vittorio eta Cesare lagun banaezinak bizi dira. Muga-mugan bizi dira, drogen, pobreziaren eta etsipenaren munduan harrapatuta.
Vittoriok esperientzia traumatiko baten ondoren aldatzea erabakitzen duenean, Cesare beste bide batetik eramaten saiatzen da. Hala ere, ez da erraza iragana ahaztea, eta periferiako bizitzak ez du irtenbide handirik eskaintzen.
Erredentzioaren, leialtasun urraezinaren eta aldaketaren mugen aldeko borrokari buruzko istorio gordina, hunkigarria eta sakonki humanoa da.

MI6 KMK SALÓN DE ACTOS A LAS 18:30

MIÉRCOLES 22 DE OCTUBRE DE 2025

IL FERROVIERE
EL FERROVIARIO

Pietro Germi | 1956 | 118' | V.O.S.E.

Andrea, un conductor de tren, está atormentado por la crisis de su matrimonio y por los cambios en su familia. Las situaciones en las que se enfrenta en el trabajo hacen aflorar su soledad y sus tormentos, entre el desánimo por un trabajo cada vez más deshumanizante y la búsqueda de redención social. Una película que retrata la difícil situación del proletariado italiano en la posguerra.

MIÉRCOLES 5 DE NOVIEMBRE DE 2025

I COMPAGNI
LOS COMPAÑEROS

Mario Monicelli | 1963 | 130' | V.O.S.E.

En la Turín del final del siglo XIX los obreros de una fábrica textil luchan para obtener unas condiciones de trabajo más dignas. Los dueños de la empresa se niegan a cualquier acuerdo y los obreros, guiados por Sinigaglia (Marcello Mastroianni), el agitador político buscado por la policía, empiezan una huelga. El enfrentamiento entre capital y trabajo se alarga durante semanas, y en ese tiempo las vidas de los protagonistas de la lucha – entre ellos Raoul y Bianca (Raffaella Carrà) – nos enseñan sus grandezas y miserias, sus amores y traiciones, su coraje y sus derrotas. La película ganó el Astor de Oro del Festival Internacional de Cine de Mar del Plata, y fue candidata a Mejor Guión Original en los Oscar de 1964.

MIÉRCOLES 14 DE ENERO DE 2026

ROCCO E I SUOI FRATELLI
ROCCO Y SUS HERMANOS

Luchino Visconti | 1960 | 170' | V.O.S.E.

Con esta película, Visconti cuenta la historia de una familia del sur de Italia, emigrada a Milán en búsqueda de un futuro mejor. A través del vínculo entre los cinco hermanos, el espectador es testigo de los conflictos morales y sociales de la Italia de los años 50, en los que surge un modelo social individualista que desintegra el sentido de comunidad y de interés colectivo.

MIÉRCOLES 4 DE FEBRERO DE 2026

RIMETTI A NOI I NOSTRI DEBITI
PERDÓNANOS NUESTRAS DEUDAS

Antonio Morabito | 2018 | 104' | V.O.S.E.

Guido, un ex técnico informático que lucha por encontrar trabajo, se ofrece como cobrador de deudas para poder saldar las mismas. Trabajando junto a Franco, descubre la brutalidad del trabajo y tiene que lidiar con su propia moralidad. Una película que explora la dificultad de distinguir entre opresores y oprimidos, y donde la línea entre el bien y el mal se difumina.

MIÉRCOLES 11 DE MARZO DE 2026

IL CAPITALE UMANO
EL CAPITAL HUMANO

Paolo Virzì | 2014 | 110' | V.O.S.E.

"El Capital Humano" de Paolo Virzì es un drama coral que explora las interconexiones entre dos familias en Lombardía: los ricos Bernaschi y los menos afortunados Rovelli. Un accidente de coche en Nochebuena actúa como catalizador, revelando avaricia, hipocresías y secretos. La película ofrece una visión cínica y aguda de la sociedad contemporánea, donde el valor de las personas parece medirse únicamente en términos económicos.

MIÉRCOLES 15 DE ABRIL DE 2026

LIBERA, AMORE MIO!
LIBERTAD, AMOR MÍO

Mauro Bolognini | 1975 | 110' | V.O.S.E.

Libera, hija de un anarquista desterrado a la isla de Ustica, es una acérrima antifascista. Protesta contra el régimen de Mussolini, participa en la Resistencia durante la Segunda Guerra Mundial y por eso su familia se ve obligada a mudarse de ciudad en ciudad. Su determinación la llevará a enfrentarse a un feroz comisario fascista.

MIÉRCOLES 13 DE MAYO DE 2026

NON ESSERE CATTIVO
NO SEAS MALO

Claudio Caligari | 2016 | 94' | V.O.S.E.

En los suburbios de Roma durante los años 90, Vittorio y Cesare son dos amigos inseparables que viven al límite, atrapados en un mundo de drogas, pobreza y desesperanza.
Cuando Vittorio decide cambiar de vida tras una experiencia traumática, intenta arrastrar a Cesare hacia un camino distinto. Sin embargo, romper con el pasado no es fácil, y la vida en la periferia no ofrece muchas salidas.
Una historia cruda, emotiva y profundamente humana sobre la lucha por la redención, la lealtad inquebrantable y los límites del cambio.